

“PORTUGALETE HIRI LAGUNKOIA” HARTU-EMANAK BIDEO LABURREN LEHIAKETA

AURKIBIDEA:

- 1.- Sarrera
- 2.- Helburuak
- 3.- Lan arloak
- 4.- Oinarri-arauak
- 5.- Sariak

1.- SARRERA

Hartu-emanak elkarteak Portugaleteko Udalaren laguntzaz eta Osasunaren Mundu Erakundearen ildoari jarraikiz belaunaldiarteko harremanak bultzatzeaz gain, Hiri Lagunkoien proiektuak sustatu nahi ditu. Horretarako, Bide Laburren Lehiaketa antolatuta du helburu duelarik herriko ikasleen ekarriak baliaturik Portugalete lagunkoiago bat lortzea. Lehiaketara aurkezten diren bideoek jarraian zehazten diren arauak eta irizpideak bete beharko dituzte.

2.- HELBURUAK

Helburua da Portugalete hiri eredugarri bilakatzea herritarren jokaera baliodunari dagokionez. Hala, bikaintasun gizalegezkoa bultzatu nahian herriko ikasleek eginiko bideo laburrak erabiliko dira.

Asmoa da, batetik, txukuntasuna, garbitasuna, osasuna, higiena, birziklatzeko ohiturak eta abar bultzatzea hiria bera hobetu eta ingurumenarekiko harremana sendotze aldera eta, bestetik, are garrantzitsuagoa dena, pertsonen arteko harreman lagunkoiak sustatzea. Honi gagozkiolarik, mugikortasun- edo bestelako arazoak dituzten herritarrak kontuan hartzea nahi dugu; emakumearenganako errespetua ere bultzatu nahi dugu baita parekoen arteko integrazioa ere. Jarduketoi esker nahi dugu Portugalete hiri lagunkoi balioduna izan dadin bikaintasuna helmuga delarik.

3.- LAN ARLOAK

OMEk Hiri Lagunkoiak lortzeko zortzi jarduketa hauexek ardatz gisara bultzatu nahi ditu:

- .- Errespetua eta inklusioa
- .- Garraiobideak eta mugikortasuna
- .- Parte-hartzea eta gizartea
- .- Etxebizitza eta egoitzak
- .- Aire zabaleko espazioak eta eraikin publikoak
- .- Komunikazioa eta informazioa
- .- Enplegua eta herritarren parte-hartzea
- .- Osasun- eta gizarte-zerbitzuak

Lan arloak oinarri ditu hala herritarren parte-hartzea nola errespetua eta inklusioa. Halaber, gizartearen ikaskuntza eta zerbitzua ere bultzatzen du herria bera hobetzaren mesedetan. Hartu-Emanak elkarteak ikastetxeak animatu nahi ditu talde parte-hartzaileek zer ikasten duten ebaluatzen eta nolabait, haien eskola-curruculumak ere lanaren isla egin dezan. Horiek horrela, ikasleen parte-hartzea saritu egingo da.

4.- OINARRI-ARAUAK

- 1.-** Portugaleteko ikastegi guztietako eta Lanbide Heziketako edozein ikastaldek parte hartu ahal du. Taldean gutxienez bost ikasle egongo dira eta adin-muga 18 urtekoa izango da.
- 2.-** Aurkeztutako lanean derrigorrezko gaia da hiritarren gizalegezko jokabideak islatzea. Esan nahi dugu gaia ez dela hiria bera soilik. Izan ere, azpimarratu behar dira pertsonen arteko harreman lagunkoiak edota pertsona horiek hirian nola mugitzen diren, hiria nola mantentzen duten garbi, hau da, higie-nekontuak, gizalegezko jokabideak eta abar.
- 3.-**Lehiaketan parte hartzeko, ikastegietako tutore nahiz zuzendariak egin beharko dute eskaera. Horretarako, txostenaren amaieran dagoen galdetegia, izena ematekoa, bete beharko dute.
- 4.-** Ikastetxeek gehienez bosna lan aurkeztu ahal du. Bideo gehiagorik grabatuz gero, ikastetxeek eurek hautatuko dituzte bost bideo onenak.
- 5.-** Aurkeztutako lanek ikasleek eginak, argitaratu eta kopiatu gabeak izan beharko dute. Horretaz gain, debekatuta dago beste lehiaketa edo deialdi batera aurkeztu den lana lehiaketa honetan aurkeztea.
- 6.-**Material guztiak, hala entzunezkoak nola irudizkoak, egiletza intelektualetik libre egon beharko du.
- 7.-** Lanak edozein errodaje, kamera edo mugikor erabili egin daitezke. Berebat, lehiaketaren gaiari helduta edozein genero onartuko da, esate baterako, fikzioa, animazioa edo dokumentala.
- 8.-** Lehiaketan izena emateko epea 2017ko urriaren 2an hasiko da eta 2017ko abenduaren 1ean amaituko da. Lanak aurkezteko epea 2018ko apirilaren 16tik 30era bitartean izango da, data biak barnean daudelarik. Epetik kanpo jasotzen diren bideoak lehiaketatik at geratuko dira. Epaitzaren data garaiz jakinaraziko da. Dena dela, 2018ko maitzaren bigarren hamabostaldian ezarriko dela aurreikusten da.
- 9.-**Bideoek gutxienez bi minutu eta gehienez bost minutu iraungo dute. Euskaraz edo gaztelaniaz egin daitezke. Zailtasunen bat duten pertsonak bideoen mezua eragozpenik gabe uler dezaten hizkuntzaren beharrik gabe musikaz bederen ulertzeko modukoak izan beharko dira.
- 10.-**Bideoek HDko gutxienezko kalitatea izan beharko dute. Ordenagailuz nahiz mugikorrez ikusteko modukoak izango dira.
- 11.-**Hartu-Emanak taldeak eta Portugaleteko Udalak beti erabili ahal izango dituzte aurkezturiko lanak gizabidezko jokaerak sustatu eta sentsibilizatze aldera.
- 12.-**Egilearen eskubideak sarien zuzkiduraren barruan daude. Bideoak lehiaketara aurkezteak badakar berekin oinarri-arauak eta helburuak onartzea.
- 13.-**Bideoaren talde ekoizleak bere gain hartzen du baita Hartu-Emanak taldea erantzukizunetik salbuetsi ere baldin eta lehiaketara aurkeztu den lana ustiatzeko orduan jabetza intelektualaren, industrialaren edo datu pertsonalen eskubideak urratzen badira.
- 14.-**Bideoak ezin dira pertsona fisiko nahiz juridikoen jabegoaren, integritatearen edo irudi onaren aurkakoak izan. Horretarako, bideoan parte hartzen duten guztiek baimena eman beharko dute irudien erabilerarako.
- 15.-**Hartu-emanak taldeak edo Portugaleteko Udalak lehiaketara aurkezturiko lana ustiatzeko modua izango dute irabazi-asmorik gabe lanaren sustapen eta zabalkundea egite aldera.

16.-Epaimahaia Hartu-Emanak izendatutako kideek eta zehazteke dagoen kanpoko aditu batek osatuko dute.

17.-Izena emateko galdetegia helbide elektronikoz hauexetara bidali beharko da: hartuemanak@euskalnet.net eta jrodrifernandez@gmail.com.

18.- Bideoak elkarteak bananduriko USBko memoriaren euskarrian aurkeztuko dira. Gailu hori Hartu-Emanak elkarteak bananduko du Adakaren bulegoetan (Portugaletako Santa María kaleko 1. zenbakiko Lehena).

19.-Talde parte-hartzaileek lanak aurkezteko orduan agiri batean datuok agertu behar dituzte:

- GAIA : HARTU EMANAK BIDEO LABURREN LEHIAKETA.

- IKASTETXEA:

- TUTORE ORDEZKARIA, HELBIDEA ETA TELEFONOA:

- BIDEOGILEEN IZENA, MAILA ETA ADINA:

- BIDEOAREN IZENBURUA:

- PROPOSAMENAREN AZALPENA:

- ADAKAN LANA AUKEZTU DEN DATA:

20.-Bideo irabazleak hauexetara igoko dira: Hartu-Emanak elkartearen www.hartuemanak.org webgunea eta Portugaleten boluntarioritza sustatzeko Adaka elkartearen www.adaka.org webgunea.

21.- Sarien banaketa ikasturtea amaitu ondoren izango da. Jendaurreko ekitaldi hori Portugaleten egingo dugu eta bertan bideoak ikusgai egongo dira.

22.-Zalantzarik badago, elkartearekin harremanetan jartzeko bideak hauexek dira:

hartuemanak@euskalnet.net eta ordezkariaren helbidea: **J. Rodríguez:**
jrodrifernandez@gmail.com

5.- SARIAK

Sariak honako hauek ditugu: hiru sari dirudun eta garaikurra.

Sariak emateko orduan epaileen irizpidea eta gorago aipaturiko oinarri-arauak kontuan hartuko dira.

.-Lehen saria: 300 € eta diploma bat

.-Bigarren saria: 200 € eta diploma bat

.-Hirugarren saria: 100 € eta diploma bat

Horretaz gain, kalitate teknikorik onenaren bideoaren accesita ere emango da. Sarietako batekin ere bideragarri izan daiteke.

- Accesita eskuratzen duenak garaikurra izango du.

Lehiakide guztiek izango dute lehiaketan parte hartu dutelako egiaztatzea.

HARTU-EMANAK elkartearen oharra:

Agiri honen jabea Hartu-Emanak elkartea da. Elkartearen baimenik gabe agiri hau ezin da ez partzialki ezta osorik kopiatu ere.

“ PORTUGALETE HIRI LAGUNKOIA” HARTU-EMANAK BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Izena emateko galdetegia:

Ikastetxea:

Tutore arduradunaren datuak:

- Abizenak
- Izena
- Solaskidearen helbide elektronikoa:

Elkartera datuak bidaltzeko helbide elektronikoa: hartuemanak@euskalnet.net

Zalantzarik argitzeko ordezkaria: J. Rodriguez, Email: jrodrifernandez@mail.com.